

**BIZKAIKO FORU OGASUNAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK
PERTSONA FISIKO BATEN AHALMEN EKONOMIKOAREN ADIERAZLEAK**

Bizkaiko Foru Aginduak zerga-irizpideetan oinarrituta pertsona fisiko baten ahalmen ekonomikoa jasotzeari buruz eskaintzen dituen zerbitzuak honako hauek dira:

- a) **Errenta mailaren zerbitzua (PFEZ):** honen barruan PFEZri lotuta dauden errentei (salbuetsiak eta salbuetsi gabeak) buruzko informazioa ematen da. Informazioa zergadunak aurkeztu duen azken aitortpenetik eskuratuko da edo, hala denean, ez badu horrelakorik aurkeztu, IFZ bati dagokionez hirugarren pertsonak egindako errenten egozketetatik.
- b) **Ondare mailaren zerbitzua:** titular moduan dituen eduki ekonomikoko ondasunei eta eskubideei buruzko datuak ematen ditu. Honen osteko bi zerbitzuekin osatzen da.
- c) **Kontuen zerbitzua:** pertsona batek titular moduan dituen kontuak jasotzen ditu, baita horien saldoen zenbatekoa ere.
- d) **Ondasun higiezinaren zerbitzua:** pertsona batek titular moduan hala EAEn nola lurralde erkidean dituen ondasun higieziari, hirikoak eta landalurrekoak, buruzko informazioa ematen du.

Aipatu diren zerbitzu horietan guztietan honako informazioa ematen da:

1. ERRENTA MAILAREN ZERBITZUA (PFEZ)

1.A PERTSONA ZERGADUNAK PFEZ-REN AITORPENA AURKEZTU BADU

- RNT: Lanagatiko etekin garbiak
 - RNT=Lanagatiko etekin gordinak–Gastu kengarriak
- RNCM: Kapital higigarriaren etekin garbiak
 - RNCM = Kapital higigarriaren etekin gordinak-Gastu kengarriak
- RNCI: Kapital higiezinaren etekin garbiak
 - RNCI = Kapital higiezinaren etekin gordinak–Gastu kengarriak
- RNAE: Jarduera ekonomikoaren etekin garbiak
 - RNAE = Jarduera ekonomikoaren etekin gordinak-Gastu kengarriak
- GP: Ondare-irabaziak
- RE: Errenta salbuetsiak
- BIG: Zerga-oinarri orokorra
- BIA: Aurrezkiaren zerga-oinarria

PFEZri lotuta dagoen eta salbuetsita ez dagoen emaitzako errenta osoa

a) Batura honen emaitza izango da:

RNT+RNCM+RNCI+RNAE+ GP

b) Eskuratutako errentari buruzko informazioa lortzeko beste era bat batura hau da:

BIG + BIA

PFEZri lotuta eta salbuetsita dagoen emaitzako errenta RE atalean adierazi den zenbatekoa izango da (aurreko a) eta b) atalen kalkuluan kontuan hartu ez dena).

Informazio osagarria:

- Honako etekin hauen atxikipena: lanekoak, kapital higigarrienak, kapital higiezinak, jarduera ekonomikoenak.
- Kuota likidoa
- Aitorpen mota: Indibiduala eta taldekoa
- Ezgaitasuna edo mendekotasuna: BAI/EZ
- Kenkariak dituzten seme-alaben kopurua
- Ohiko etxebizitzagatiko kenkaria: BAI/EZ
- Familia-unitateko kideak identifikatzeko datuak
- Alta JEZn: BAI/EZ

1.B ZERGADUNAK EZ BADU PFEZ-REN AITORPENA AURKEZTU

- RT: Laneko etekin gordinak
- RCM: Kapital higigarriaren etekin gordinak
- RCI: Kapital higiezinaren etekin gordinak
- GP: Ondare-irabaziak
- RE: Errenta salbuetsiak

Emaitzako errenta osoa PFEZri lotuta eta salbuetsita ez dagoena batura honen emaitza izango da:

RT+RCM+RCI+ GP

PFEZn emaitzako errenta osoa, lotua eta salbuetsita RE atalean ezarriko den zenbatekoa izango da (aurreko kalkuluan kontuan hartu ez dena).

Informazio osagarria:

- Honako etekin hauen atxikipena: lanekoak, kapital higigarrienak, kapital higiezinak
- Alta JEZn: BAI/EZ

2. ONDAREAREN MAILAREN ZERBITZUA (*)

(*) Hala denean kontuen zerbitzuarekin eta ondasun higiezin zerbitzuarekin osatuko da.

2.A ONDAREAREN GAINKO ZERGA AURKEZTUTA EDO AURKEZTU GABE

- Balioak eta errentak
 - A. Akzioak
 - B. Hirugarrenei kapital propioak lagapenean uztea
 - C. Funtsak
 - D. Bizi-aseguruak
 - E. Aldi baterako edo bizi osorako errentak

Kontsultatu den IFZn duen ondarea:

A+B+C+D+E gakoien zenbateko osoak

Informazio osagarria:

- Partaidetzak sozietateetan
- Alta JEZn: BAI/EZ
- Ibilgailuen kopurua
- Itsasontzien kopurua
- Aireontzien kopurua

2.B ZERGADUNAK ONDAREAREN GAINKO ZERGAREN AITORPENA AURKEZTU BADU

Aldi berean, honako informazio hau emango da:

- Aitorpenean zainpetuta dauden ondasunen eta eskubideen zenbateko osoa
- Zerga-oinarria

3. KONTUEN ZERBITZUA

Informazio hau emango da:

- Kontuari buruzko datuak (IBAN eta bankuaren izena)
- Saldoa abenduaren 31n
- Azken hiruhilekoko batez besteko saldoa
- IFZ eta kontuaren arteko erlazioa
 - Jabari osoko titularra
 - Baimendua
 - Gozamenduna
 - Jabe soila
 - Beste era bateko onuraduna
- Titulartasunaren portzentajea

4. ONDASUN HIGIEZINEN ZERBITZUA

Honako informazio hau ematen da datuen kontsultaren xede den ekitaldiari dagokionez edo azken 5 urteetako, hala EAEn nola lurralde erkidean kokatuta daudenei buruz:

- Ondasun higiezinaren kokapenari buruzko datuak
- Erabilera
- Katastroko balioa
- Titulartasunaren portzentajea
- Titulartasun mota
- Azken eskualdaketaren data
- Jarduera ekonomikoari lotuta dagoen: BAI/EZ
- Atzerriko ondasun higiezinik duen: BAI/EZ